

DESKRIBAPENA



Uribe Kosta BHlko 2. batxilergoko ikasleak gara: **Yaiza** Ferro Bedialauneta, **Maialen** Garaizar Inchaurtieta, **Laia** Martín de Pablo eta **Paula** Fernández García.

Startinnova plataformaren bitartez, gure etorkizuneko proiektua aurkeztuko dizuegu.

Batez ere **3. adinekoei** zuzendutako zerbitzua eskaintzera gatoz, horretarako **gazteen** lankidetzaz funtsezkoa izanik. 3. adineko pertsonak bizitza aktiboagoa eta zoriontsuago izan dezaten. Jaduera edo ekintza anitzak eskainiko dizkiegu: bidaiak, kirola eta jarduera

gastronomikoak beste batzuen artean.

Gizarteak adinekoak alde batera uzten dituela uste dugu, bizimodu **sedentario** bat izatera kondenatuz. Horregatik, jarduera ezberdinak eta **merkeak** eskaini nahi dizkiegu, edozeinek gure zerbitzuak kontratatu ahal izateko asmotan.

Gainera, kontuan izan behar dugu, gazteenak eta nagusienak elkartzean, bi belaunaldiak aberastuko dituen esperientzia eta pentsamendu trukea lortzen dela. Horiek **JUBIZIRIK** enpresaren helburu nagusiak izanik.